



APPCCaren OINARRIAK

APPCC plan bat ezarri, aplikatu eta mantentzeko beharrezkoak dira zazpi jarduera ezberdin, Codexeko Zuzentaraueetan (1997) "**zazpi printzipioak**" izenarekin agertzen direnak.

Honako hauek dira zazpi printzipioak:

1. printzipioa: arrisku biziaren azterketa egitea

Arrisku biziak identifikatzea eta produktuaren sistemako aldi bakoitzean horiekin batera doazen arriskuak ebaluatzea. Balizko kontrol-neurriak deskribatzea.

2. printzipioa: Kontrol Kritikoko Puntuak (KKP) zehaztea

Kontrol Kritikoko Puntua (KKP) kontrola fase bat da, bertan kontrola ezar daitekeen fasea. Funtsezkoa da elikagaien kaltegabatasunerako arrisku bizia ekidin edo deuseztatzeko, edo maila onargarri batera murrizteko. Erabakien zuhaitza ezartzeak KKP bat zehaztea erraztu dezake.

3. printzipioa: muga kritikoak ezartzea

KKP batekin batera doan kontrol-neurri bakoitzak muga kritiko bat izan behar du, kontrol-parametroen baitan onargarria eta onargarria ez dena bereizteko.

4. printzipioa: zaintza-sistema ezartzea

Zaintza da KKP batean programatutako neurketa edo behatzea, ebaluatze aldera ea fasea kontrolpean dagoen; hau da, 3. printzipioan zehaztutako muga kritikoaren edo kritikoaren baitan dagoen.

5. printzipioa: KKP baten zaintzan ezarritako muga kritiko batekiko desbideratzea atzematen denean hartu beharreko neurri zuzentzaileak ezartzea

Zaintza-sistema ezarri ondoren, desbideratzeak aurkitzen direnean, desbideratze horiek zuzentzeko edo, gutxienez, maila onargarria ekartzeko neurriak hartuko dira.





6. printzipioa: egiaztatze-prozedurak ezartzea, APPCC sistema behar bezala dabilela ziurtatzeko

Prozedura horiek APPCC planeko auditoretzak hartzen dituzte euren baitan, desbideratzeak, produktuen helmugak eta noizean behin egiten diren laginketa- zein egiaztatze-lanak aztertzeko, plan osoa balioztatzeko.

7. printzipioa: printzipio horietarako eta printzipio horiek ezartzeko prozedura eta erregistro egoki guztiak jasotzen dituen dokumentazio-sistema ezartzea

Enpresako prozedura guztiak dokumentatu eta beharrezko datu guztiak erregistratuko dira, sistema inplementatzeko eta gerora berrikusteko.

